

Erabi enpresak ezarri du Arantzazuko parketxeko interpretazio gunearen sistema inmotikoa

Bizkaiko Erabi enpresa espezialista da eraikinetan ikus-entzunezko teknologia berriak eta kontrol sistema adimendunak jartzen, eta hark egin du, hain zuzen ere, Aizkorri-Aratz natur parkeko interpretazio guneko ikus-entzunezko tresneriaren instalazioa. Interpretazio gunea Arantzazuko santutegian dago, Gandiaga Topagunea izeneko kultura zentroan.

Bisitariak euskal kultura eta paisaiari buruzko informazio ahalik eta osatuena izan dezaten diseinatu dute esparrua. Horretarako, teknologia berriena erabili dute instalazioetan, hala nola Blending sistemadun bideo proiektzio panoramikoa, 12 metroko zabalera eta 4 metroko altuera baino gehiagokoa, eta ia 8 metroko luzera duen proiektzio sinkronizatu hirukoitza. Gainera, tresneria hori teknologikoki integratu dute, bai mota guztietako egituretan mimetizatuz, baita instalatutako sistemen kudeaketa nahiz kontsumoan eraginkortasuna sustatuz ere.

Erabik eraikin guztiz eraginkor bat sortu du, barne diseinatzaileekin, arkitektoekin eta ingeniariekin egindako elkarlanari esker. Eraikinaren ikus-entzunezko sistemak, argizatze sistemak, ingurumen sistemak eta sistema elektronikoa modu eraginkorrean kudea daitezke (itzaltze eta pizte orokorrak, guneakako dimerizazioa...), neurrira egindako interfaze batetik; interfaze hori haririk gabeko gailu batean integratuta (IPAD, IPHONE, Android, haririk gabeko panela...) edo urrutitik kontrolatuta egon daiteke. Sistemak kudeatzeko, beraz, nahikoa da botoi bat sakatzeko edo makro nahiz eszena pertsonalizatuak jaurtitzea; horiek baliabide guztiak modu erraz eta optimizatuan kudeatzea ahalbidetuko diete arduradunei.

Integrazioaz arduratu direnen esanetan, *“proiektu honek indartu egin du eraikinen kudeaketa adimendun, erraz eta guztiz automatizatuaren alde egin dugun apustua. Horri esker, erabiltzaileak beren benetako zereginera bakarrik bideratu ahal izango dituzte ahaleginak, hau da, euskal kultura eta paisaiak sustatzea”*. Gaur egun, mota horretako irtenbideak sendotzeko prozesuan murgilduta dago Erabi enpresa, eta inmotikako zerbitzu aurreratueta zuzendu du lana, bereziki; zenbait proiektu garatuko ditu arlo horretan.

Erabi, Tecnología Audiovisual enpresa

ERABI Tecnología Audiovisual enpresa orain urte batzuk hasi zen lanean “INMOTIKA” (*eraikinen kontrol eta kudeaketa eraginkorra, modu global, erraz eta optimizatuan*) delakoaren eta “BUILDING SOLUTIONS” (*Kudeaketa irtenbide integralak, bezeroen neurrira egindako interfaze grafikoetatik*) izeneko inplementazioaren arloetan; bi arlo horiek zentro korporatiboak,

interpretazio guneak, museoak, erakustaretoak, zentro teknologikoak eta abar dituzte xede, nagusiki.

2008tik, enpresaren Inmotika Sailak kasuan kasuko irtenbide irekiak eskaini dizkie bezero garrantzitsuei. Nabarmentzekoa da bezeroen beharrei eskaintzen dien arreta, baita proposatzen dituen irtenbideak ere; izan ere, irtenbide horiek areagotu egiten dituzte segurtasuna, erosotasuna eta baliabideen kudeaketa eraginkorra, izaten duten kalitate eta optimizazioari esker.

Hasieran, ikus-entzunezko teknologia berrien inplementazio nahiz integrazioan zen espezialista; baina kontrol sistema adimendunen, argiztatzeko kudeaketa sistemen, telekomunikazioen eta baliabide anitzeko proiektuen (AV, kontrola, informatika...) arloetan izandako esperientziari esker, enpresak beste hainbat zerbitzu eskaini ahal dizkie mota guztietako erakundeei, eta hobekuntza handiak eman diezazkieke lantoki nahiz etxeetan, bai eraginkortasunari dagokionez (aurreztea, ekodiseinua...) bai eguneroko lanaren kalitateari dagokionez.

Bilbo, 2011ko martxoaren 17a

Informazio gehiago:

EikenPress

Javier Palacios (MBN Comunicación)

94 435 63 30